

I. Sagardotarako Sagarren Erakusketa egingo dute asteburuan Pagoetan

Aia Erakusketa
10:00etatik 14:00etara
izango da irekita Iturraran
Parketxean; sarrera
doakoa izango da


AIORA LARRAÑAGA

Pagoetako Parke Naturalak erakusketa eta azoka ugari eskaintzen du urtean zehar. Gehienak udaberrian eta udan izaten dira, urtaro horietan bertako landareak eta zuhaitzak onenean izaten baitira. Hala ere, lehen aldiz udazkenarekin lotura zuzena duen gaia izango da erakusgai Iturraran Parketxean. Izan ere, datorren asteburuan Sagardotarako Sagarren Erakusketa egingo da, Pagoetako Parke Naturalean lehendabiziko aldiz.

49 sagar mota

Erakusketa Iturraran Parketxean egingo da eta «Euskal Herriko, Asturiasko eta Frantziako 49 sagar mota ikusteko aukera izango da bertan. Horietatik 16 gipuzkoarrak izango dira, 7 bizkaitarrak, 20 asturiarrak eta 6 frantziarrak» azaldu dute Pagoetako Parke Naturaleko arduradunek.

Sagar motak ikusteaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariak sagarrekin frogak egingo dituztela ere aipatu dute. «Besteak beste, refraktometroarekin sagarren azukre maila neurtuko dute; barneragarritasuna neurtzen duen tresna batekin sagarren gortasuna aztertuko dute. Gaine-



Pagoetako Parke Naturaleko Iturraran Parketxea. AINHOA FERNANDEZ

ra, sagarra erditik jo eta iodotan busti ondoren, almidoiaren frogak ere egingo zaio, sagarra heldua dagoen ala ez jakiteko». Horretaz gain, erakutsi ez ezik, sagarrak dastatzeko ere jarriko dituzte, antolatzailen esanetan.

Sagarrondo mintegiak

Pagoetako Parke Naturalean sagardotarako sagarren inguruan lanean ari dela azaldu dute parkeko arduradunek: «Pagoetako Parke Naturaleko Ibarrola Goiko eta Orbelaur baserrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak sagarrondo min-

tegiak ditu». Mintegi horien helburua baserritarrek fruta arbola gehiago landatzea eta horiek sustatzea da: «Sagardotarako sagarrondoan landaketa bereziki bultzatu nahi dugu. Guk hemen ditugun sagar moten kalitatea hobetu nahi izaten dugu eta, horrela, sagardoa hobetzea lortu».

Ordutegia

Erakusketa ikusi nahi dutenek horretarako aukera izango dute urriaren 4ean eta 5ean 10:00etatik 14:00etara Iturraran Parketxean. Sarrera doakoa izango da.



Portuko lane

ORIO Orioko portuan lan berriak jarri eta espaloia t hasi eta Arosteginerainol narazi dutenez, hilabete e

Laburrak

AHTri buruzko hitza izango da gaur

ORIO Orioko Gazte Asar AHTri buruzko hitzaldia izango da gaurko. Hitzordua 19:00etatik izango da Kultur Etxeko agustian eta AHT Gelditu! lantzeko kide Jone Etxeberria da hizlaria. Abiadura Handiaren inguruko datuak eta ekar ditzakeen ondorioak ditu aztergai.

Ikastolen aldeko jair joateko autobusa izango da

ZUMAIA Zumaiko Txinpa-kara Elkarrekin datorren igarritan ospatuko den Kilometroak 2008 ikastolen aldeko festak autobusa antolatuko da hidaia nahi dutenek ino